

## 7. BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Enpresa baten funtsezko baliabideak ondorengo kategoriatan sailkatu daitezke:

- Baliabide fisikoak: Baliabide fisikoei dagokionez oso ondo orniturik gaude, denda naiz animaliak edukitzeko eraikina oso handiak direlako eta dendan nolanhiko artikuluak saltzen ditugulako, etxe-animalia ororen beharrak asetzeko beste, txakurretatik hasita, sugeetaraino, behietatik pasata.

- Baliabide intelektualak: Ez gara gaian adituak, baina al baitari bat kontratatuko dugu eta titulaziorik izan ez arren, bazkide guztiok izan ditugu maskotak eta kontabilitate aldetik danak dugu esperientzia mugatu bat.

- Giza-baliabideak: Giza-baliabide aldetik ongi prestatuak gaude, bazkide guztiok lan egiteko intentzioa dugu eta al baitaria kontratatuko dugu, gainerakoak boluntario lanak egiten egongo dira eta beraz doan egingo dute lana, animalien onurarako.

- Finantza-baliabideak: Finantza baliabide aldetik, gure enpresak ba du nahiko baliabide. Lur zaila ez dugulako erosi beharrik izan eta bazkide bakoitzak diru kuota minimoa jartzeko ez dugu arazorik izan.